

# Karkara

*karkara.eus*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko abenduaren 22a · 390 zenbakia

EUSKARAZ GAZTE  
LITERATUR  
LEHIAKETA  
GEHIGARRIA BARRUAN



## Erosi, alokatu edo zer?

Etxebizitza oinarrizko eskubidea izan arren, asko dira etxea alokatu edo erosteko zailtasunak dituzten herritarrak. Nola dago gaia Orion?

**11**

**Akuilua hartuta**  
Xabier Sukia

**20**

**Argazki bilduma**  
San Nikolas festak

**27**

**Elkarrizketa**  
Euskebio Arzadun

**34**

**Udalaren txokoa**  
Aritzaga-Plaza

· Komun eta sukaldien erreforma  
 · Gaitara eta termo elektrikoien instalazioa  
 · Ur-jarioak aurkitu eta konpondu  
 · Bainujentzia lendu eta duta jartzea  
 · Gremioen koordinazioa, dekoratuzakia  
 · Zoru erradiazatzea

www.fontaneria-fontana.com  
**fontana**  
 iturgintza  
 Plaza Endara n°1, 20810 - Orrio  
 fontana-ju@hooimail.es  
 661 362 828

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

ESKEROK ASKO GUZTIOI  
*Urte Berri On!*  
 2018

**Eki-lorea**  
belardenda

**PRODUKTU DEPURATZAILEETAN  
%15eko DESKONTUA  
URTERRILAK 1etik 31ra**

**ZORIONAK  
URTE BERRI ON**

15%  
 15%

Eusko Gudari, 5 - 20810 ORRIO  
 Tel. 943 831 377  
 ekiloreabelardenda@gmail.com

**ZAUDEN  
LEKUAN ZAUELA**

**K**  
 karkara.eus

**TXUKUN  
LORAZANTZA, S.L.**

Lorezaintza  
 Mendiko lanak  
 Indusketak  
 Itxiturak  
 ...

Tel. 660 332 756 · 679 428 851  
 txukunlorazantza@hotmail.com

**EKILORE  
GARBIKETAK**

626417841  
 ekilore@outlook.es

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
 Arrantzale 63 · 20810 · Orrio · Gipuzkoa  
 Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

390

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea  
kultur elkarte

**Erredaktore burua**  
Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Iñigo Expositok  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Aiora Larrañaga  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**

Ibon Errazu  
Xabier Etxeberria  
Arrate Illaro  
Iñaki Iturain  
Xabier Sukia  
Jabier Zabaleta

**Diseinua**

Saioa Perona

**Azaleko argazkia**

Iban Egiguren

**Banatzaileak**

Miriam Garcia,  
Endika Ruiz (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAREN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Jon Agirresaroberi jarri dio puntua Iñigo Expositok: *Nola doa aurtego bertso txapelketa?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

## PUNTUA JARRITA

**JON AGIRRESAROBE** (DOINUA: BALEAREN BERTSOAK)

**Nola doa aurtego bertso txapelketa?**

bake ederra eman du  
bukatu da-eta!  
Maulen ezker pareta  
Barakaldon BECa,  
aretoa egon da  
goraino beteta!

Maialen Mendiluze  
biak buruz buru:  
afari ederra ta  
kafe, kopa, puru:  
soziedaderik libre  
aurkitzen badugu,  
martxo aldera Orion  
izango ditugu!



**Hurrengo bertsolaria: Iñaki Arostegi**

**Puntua: Traineru jaitiera urteko lehen zita?**

Publizitatea kontratatzeko:  
**Karkara**  
688 859 682 (Sonia)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

TOKIKOM



**LAGUNTZAILEAK**



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ttipi  
ttapa  
943259695  
ttipittapa.oihane@gmail.com  
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

*Izaskun Estankoa*  
 .Tabakoa  
 .Prentsa  
 .Eskola materiala  
 .Opariak  
 Tel.: 943 83 31 03

**ITZIAR**  
 kirolak  
 Tel. 943 83 31 03

**KAIJOA**  
 Arropa  
 Oinetakoak  
 Osagarriak  
 Arantzale kalea, 1  
 T 943 84 895  
 ORIO (Gipuzkoa)  
 Zorro kalea, 18  
 (S. Plazateko kalearen ertzean)  
 T 943 821 034  
 ZARAUTZ (Gipuzkoa)  
 Erbera kalea, 10  
 T 943 843 020  
 ZARNAKA (Gipuzkoa)  
 www.kaioa.es

JARRI PUBLIZITATEA  
**KARKARAN**  
 688 859 682

**2GURPIL**  
 Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)  
 T 943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

**Zarautz** Hileta Zerbitzuak  
 > Hilerrien kudeaketa  
 > Hileta zerbitzu orokorrak  
 > Zerbitzu iraunkorra  
**Harrespil** Hilerri Zerbitzuak  
 Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

**sinergia** FISIOTERAPIA IKERKETA  
**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA  
**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)  
 IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
 TF.: 943 130 577 685 718 595

*Lizaso dekorazioa*  
 Tf: 943 83 07 84  
 Faxe: 943 24 87 15  
 Eusko Gudari, 48

**Sagasti LEIHOAK**  
 ROBERTO SAGASTI  
 Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
 sagasti@sagastileihoak.com  
 Arrantzale kalea, 65  
 20810 ORIO (Gipuzkoa)

**XS** arkitektura  
 obrak proiektuak errehabilitazioak txostenak eraikuntza zerbitzuak ITEak eraikinen mantenua  
 borja agiresarobe lopetegi herriko-barra 6, behea 20800 zarautz  
 6 3 5 7 3 1 7 2 2  
 9 4 3 1 3 4 3 5 8  
 xs@xsarkitektura.com

## San Nikolas jaien balorazioa

Bukatu berri dira aurtengo festak eta, berriz ere, zorionak eman behar dizkiegu oriotar guztiei, jaiak bakean pasa ditugulako. Aurten eguraldiak ez digu askorik lagundu; baina, hala eta guztiz ere, jendea animatu da programan zeuden ekitaldietan parte hartzera.

Oraingoan ere txalotu eta zoriondu egin behar ditugu parte hartu duten eragile guzti-guztiak: herriko merkataria eta ostalariak, boluntarioak, brigadakoak, Udaltzaingoa, kultur etxeko arduraduna eta kultur teknikaria, eta Udaleko hainbat langile, nahiz eta ezkutuan egon, beren laguntza beti delako beharrezkoa festak aurrera ateratzeko.

Baina aurten kezka bat azaldu nahi dut eta, agian, autokritika egin ere bai. Gazteen parte-hartzeari buruz ari naiz. Argi dago zerbaitetan huts egin dugula: Udalak iaz Kuadrillen Eguna antolatu zuen lehenengo aldiz frontoian eta nahiko ondo joan zen, kuadrilla dezentte hurbildu ziren-eta frontoira bazkaltzera. Aurten, beraz, proposamen berarekin jarraitzea pentsatu genuen: kuadrilla bakoitzak bere bazkaria eramatea eta Udalak sagardoa, ura eta bazkaltzeko azpiegitura guztia jartzea; berogailuak ere jarri genituen. Kuadrillen parte-hartzea, hala ere, oso eskasa

## Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektroniko honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

izan da.

Herriko festak denontzat dira eta, zenbat eta jende gehiagok parte hartu, hobeagoa izango da denontzat. Festa-bilerak irekiak izaten dira, edozeinek dauka parte hartzea eta, zenbat eta ekarpen gehiago egin, hobe denontzat. Festa Batzordearentzat denon ekarpenak dira garrantzitsuak; baina garrantzi handia du, batez ere, gazteek bertan parte hartzeak.

Baliteke festa-bilera horien deialdia ez iristea jende guztirengana. Beraz, gure aldetik hausnarketa sakona egin dugu, ikusteko ea zer erataria egin dezakegun deialdia, ahalik eta jende

gehienarengana iristeko.

Hala eta guztiz ere, hasieran esan bezala, de herritar guztiak zoriontzeko gaude, jai giro ona izan dugulako.

Eta, beti bezala, ea guztion artean hobetzen ditugun hobetu beharrekoak. ■ **Lourdes Salsamendi**. Kultura batzordeko burua

## Eskerrik asko KARKARA laguntzaile

Urtea amaitzear da eta iritsi da eskerrik emateko garaia. Eskerrik asko zuri, KARKARA laguntzaile, urtez urte gure proiektua bizirik mantentzen laguntzeagatik. Zu gabe KARKARA ez litzake berdina izango. Are gehiago, ziu-rrenik ez litzake izango.

Urtero, esker ona adierazteko, plazan jartzen gara abenduaren 24an laguntzaileei oparitxoak banatzen. Aurten, koadernoak edo poltsak banatu ordez, bi Oparibox zozketatuko ditugu gure laguntzaileen artean. Errege eguna pasata, urtarrilaren 8an egingo dugu zozketa, Karkaran bertan.

Oraindik ez bazara Karkara laguntzaile eta izan nahi baduzu, ez egin zailtzarik eta deitu 943 83 15 27 telefono zenbakira edo idatzi karkara@karkara.com. Urtarrilaren 8a baino lehen egiten bazara, zozketan sartuko zara.

Eskerrik asko bihotzez, KARKARA laguntzaile! ■ **KARKARA taldea**

### ■ JAIOTAKOAK

- Xabat Manterola Etxaniz, Orion, abenduaren 9an.
- Maddi Larrañaga Abad, Orion, abenduaren 4an.
- Oihan Illarramendi Larrañaga, Orion, azaroaren 21ean.
- Zara Iqbal Bibi, Orion, azaroaren 20an.

### ■ HILDAKOAK

- Eduardo Aragones Torres, abenduaren 10ean. 75 urte.
- Fernando Dorronsoro Larrañaga, azaroaren 30ean. 70 urte.

### ■ EZKONDUTAKOAK

- Hilabete honetan ez da ezkontza erregistrorik egon.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**

**ZUR EDER**  
muebles tapicería altilerías

zur.edera@zur eder.com  
943 13 49 21  
Bilgona Ubegetan Nº1, Puerta B  
20810, Aia-Orio

**AUKERA!**  
**50%**  
- ERAINOKO  
DESKONTUA  
KOLTZOIETAN

**niko**  
taberna

Karta · Pintxo tradizionalak  
Okindegia

Palata Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27



187 korrikalarik hartu zuten parte Herri Lasterketan. A. MUTIOZABAL



Laurgainen egin zuten urteko azken hitzaldi ibiltaria. JOXEMARI OLASAGASTI



Lehen aldiz, arraza anitzeko ganaduen enkantea egin zuten. KARKARA

# Abenduko martxa

“Korrika amaitu eta parrandan hasi, hori da urteroko errezeta. Abenduak, urteko azken hilabetea izanagatik, ez du galtzen bere martxa.”

**F**estan hasi eta festan buka, horixe da abenduak Orion urtero ekartzen duen martxa. Luze joan ziren sanikolasak, baita hotz ere. Halaxe geratu zen, behintzat, kuadrilla eguneko bazkarira agertu zen kuadrilla bakarra. Blusa soinean eta aho bete hortz, ederki pasa zutela esan diote Karkarari. Zertan egin da huts? Horra hor, hausnarketarako abiapuntua.

Bost eguneko jai, halako ajea. *Ohean baino, hobe korrika* esan zioten euren buruari Orioko Herri lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. 187 izan ziren, hotzari aurre egin eta lasterka egin zuten balienteak. Batzuk korrika eta besteak oinez, Laurgain auzoari bisita eginez amaitu ziren aurtengoz hitzaldi ibiltariak. Argazki sorta ederra utzi digu Joxemari Olasagastik, eta gure itsas ondarea hobeto ezagututa bukatu-ko dugu urtea.

Ajerik gabe eta pozik da, ordea, Eusebio Arzadun, Zallako Zornotzari dema apustua irabazita. Jokaturako guztia irabazi du aurren aiarrak eta urtea goi-goian bukatzeko moduan da Etxeberri baserriko semea. Berak ez ditu idiak salduko, baina idisko batzuk saldu zituzten aurreko astean arraza anitzeko ganaduen enkantean. Lehenbizikoz egin dute enkantea eta espainia osoko erosleak bakarrik ez, jende mordoak joan zen ikusmiran. Bero-bero egon omen zen giroa.

Eta zer hobeagorik negu hotzerako, Olentzerori zapatila batzuk eskatu eta urtea korrika amaitzea baino. Hasi entrenatzen San Silbestrerako, baina kontuz gehiegi nekatu gabe, hotz handia egiten badu ez da eta urrik egongo iturrietan. Korrika amaitu eta parrandan hasi, hori da urteroko errezeta. Abenduak, urteko azken hilabetea izanagatik ere ez du galtzen bere martxa. Gabonak ondo pasa!

# Festetako herri bazkaria ez zen ondo atera. Zer egin daiteke parte-hartzea sustatzeko?



“Lanketarik gabeko herri bazkaria antolatu da”

**G**ogorra da sanikolasetako herri bazkariko argazkia ikustea, baina nola iritsi gara puntu horretara? Nire ustez lanketa gabeko herri bazkaria antolatu da eta horrela zaila da jendeak erantzun ona ematea.

Egia da gazteek festen antolakuntzan parte hartzen ez badute ez dela erraza horien behar eta gustuen araberrako gauzak antolatzea. Baina udalak parte-hartzea bultzatzeko gauza handirik ez duela egin iruditzen zait.

Argi dago gazteen inplikazioa lortuz gero gauza politak egin daitezkeela. Adibide garbia dira Gazte Festak, aurrekonturik gabe 250 pertsonako bazkaria antolatzea lortzen dugulako.

**Ander Garcia**



“14:00etarako frontoian ginen tokia hartzeko”

**O**stiraleko herri bazkarira joateko konpromisoa hartu genuen kuadrillako batzuk. Bezperan parranda eginda eta gogo handirik gabe, baina iaz ondo pasa genuen horrekin, 14:00etarako frontoian ginen tokia hartzeko... tokia? Dena guretzako zen eta! Zerbait hartzera joan eta bueltan berdin jarraitzen zuen: kuadrillarik ez, udaleko inor ez...

Zerbaitek huts egiten duela garbi dago. Ez naiz bileratar joaten, eta ez naiz kexatuko alde horretatik. Egia da ez dela informazio asko zabaldu bazkariaren inguruan, baina non da herria? Herri bazkariko argazkia polita ez izan arren, guk oso ondo pasa genuen!

**Nadeth Agirre**



“Gogoeta behar da gertakari hauek ekiditeko”

**N**i lanean nintzen eta ezin izan nuen festetan nahi bezainbeste ibili. Hurrengo egunean jaso nuen herri bazkarian gertatu zeneren albistea, pena handiz.

Nire ustez arazoa ez da parte hartzearen sustatze falta edo festen egituraren arazoa. Orion, gaur egun jendeak ez du gehiegi parte hartzen herriko ekintzetan, tendentziek, orokorrean, beste zerbait markatzen dutelako.

Sustatze plan bat baino, gogoeta bat da gertakari hauek ekiditeko behar dena. Egungo baloreek, gure herriko giroan zein eragin dute? Hori al da gure herriarentzat nahi duguna? Hala ote?

**Aritz Pardina**

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

# Finalaren aurretik Txorieneko sukaldean

**Jon Agirresarobe Lopetegi**  
**Bertsozale marmitakoa**



## Osagaiak

Hegaluzea.  
Patata.  
Tipula.  
Porrua.  
Baratxuria.  
Azenarioa.  
Piper gorri eta berdea.

Pipermina.  
Piper haragia.  
Tomate saltsa, etxean egina.  
Pattarra.  
Gatza.

## Edaria

Euskal Sagardoa.

## Nola egin

Bi heltze jarriko ditugu martxan: batean, salda egingo dugu hegaluzearen hezurrekin eta porruaren zati berdearekin; bestean, erregosten jarriko ditugu tipula, porrua, baratxuria, azenarioa eta piperrak. Berdin dio zati handiagoak eginda, birrindu egingo ditugu eta. Hori bai, marmitako gorrien zalea da Agirresarobe, kolorea emateko behar bezala potxatuko dugu tipula. Piper haragia eta tomate saltsa ere gehituko dizkiogu, pattar pixka bat ere bai. Erregosia eginda dagoenean irabiagailu elektrikoan pasako dugu nahaski bihurtuz. Hemen-dik aurrerakoak ez du sekretu handirik. Aurrez piper zati batzuk jarriko ditugu kazuelan, piper gorri eta berdeak. Patatak, nahaskia eta salda gehituko dizkiogu. Ez dugu patata guztiz birrindu arte itxarongo. Prest ditu hegaluze takoak, gatza gehitu eta heltzera gehitzeko. Momentuan sua itzali eta mahaira.

## KARKARA

**E**TBko Txoriene sukaldaritza saioan ikusi dugu oriotar bat. Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aitzakian elkarrizketatu dituzte Xebastian Lizaso bertsolaria eta Jon Agirresarobe Txapelketa Nagusiaren koordinatzailea. Marmitakoa prestatu du oriotarrak eta azpeitiarrak probatu. Bertsolari-tzaz aritu dira baina tarte batean hizpide izan dute KARKARA-ko Mahai bueltan sukaldaritzari eskainitako atala.

Maialen Lujanbio txapeldunaren agurreko bertsoarekin igandean amaitu zen Bertsolari Txapelketa Nagusia. Oriotar dezente izan zen Barakaldon: Errikotxia bertso eskola osorik, koadrilan edo familian joandako taldeak mordoxka. La-

nean ere bai bakarren bat: Xabier Sukia esateri Euskadi Irratian, peto horia jantzita aniztasun funtzionala duten entzuleei laguntzen Iñaki Gurrutxaga, Txapelketaren eta finaleko antolakuntzaren koordinazio lanetan Jon Agirresarobe.

Oihartzun mediatiko zabala izan du bertsoak azken hilabeteetan. Horren adibide, lau egun lehenago Txoriene programan agertu zen Agirresarobe. Abenduaren 13an Santa Luzia egunez eskaini zuten hilabete lehenago grabatu zuten saioa. Eguzkitsu grabazio egunean, euria goi eta behe emisioan. Aurrez grabatzearenak badu beste arrisku edo zailtasun bat: finalaz hizketan aritu ziren finalistak zein izango ziren jakin gabe, finalurrekoen bigarren buelta hasteko baitzego-





Iturrieta, Lizaso eta Agirresarobe, bik hitz egin eta batek sukaldatu. BERTSOZALE ELKARTEA

“Errezetak berritzeagatik Aldapako bazkideen ahotik entzundako errieta saioak ere kontatu ditu.”

en marmitakoa prestatu zen egunean. Makillajea ez da, bezaz, telebistaren tranpa bakarra.

Mantal urdinak soinean ordubeteko berriketaldia jaso du Txorienek. Sukaldean oriotarra, hizketan gelditu gabe Zigor Iturrieta eta Xebastian Lizaso. Bertsolaritzaren bueltako gaiak izan zituzten hizpide, baina oriotarrak sukaldeko kontuak aipatu zituen aurkezle durangarraren galderak erantzunez. Amaren eta soziedadeko bazkideen laguntzarekin ikasi du sukaldean. Errezetak berritzeagatik Aldapako bazkideen ahotik entzundako errieta saioak ere kontatu ditu. Tartean izan dira herriko marinelen, koadrilako afarien eta festa zinegotzi lanetan aritu zen lau urteetan antolatutako herri bazkarien aipamenak. KARKARA eta Mahai Bueltan atala ere aipatu ditu oriotarrak: hilero-hilero, sukaldaritza abiapuntu hartuta aiar bat edo oriotar bat elkarrizketatzen du Agirresarobek.

Marmitako gorritzata atera da. Hala gustatzen zaio, piper zapore handikoa egiten du aukeran, txispa pixka batekin. Txorienekoa Iturrietak eta Lizasok probatu dute eta goxoa dagoela aitortu. Tuperrean ekarri du zati bat oriora, etxeokoe eta soziedadeko lagunek probatu dezaten. Norbaitek elkarrizketa osorik ikusi nahi badu: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/txoriene/kapituluak/loturan/aurkituko> du.

*eduzitegia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jatetxea-kafeategia

Plater konbinatuak,  
 bokalok,  
 hamburgerak,  
 raziok,  
 eguneko menua...

*ostiralean  
 pintxo  
 potea!*

eta etxera eramateko  
 zerbitzua!  
**943 831 623**  
 Orioko kaledegian, Erbera I

*Orizten  
 2016*



**ASADOR XIXARIO**

Euzko Gatares Kalea, 2  
 Tel. 943 830 019 - ORIO

*Portu*  
**ERRETEGIA**

Santo Erreka Auzoa, 2/6  
 943 89 24 35  
 20809 AIA-ORIO

*luzatik laserako oinetan  
 pintxo erabak eguzki onarekin*

**ITZALA**

*kartelak jokatzenko  
 aprofesat*

tel. 943 83 12 59

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

**KOLON TXIKI**  
 oharbuzia  
 jatetxea



Herriko Euzarantz, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea



Andatza auzoa - AIA  
 Tel. 943 83 45 21

*Gabon  
 Zoriontsuak  
 opa dizkizuegu!*

**Gabona**  
 JATETXEA

Antillako Hondartza 5  
 20810-Orio-Tel.:943 89 04 16



**ABENDUAK 24**  
 EGUN OSOAN IREKITA  
 ETORRI  
 ESTUDIORA  
 ARGAZKITXO BAT  
 ATERATZERA!

*Gabon Zoriontsuak opa dizkizuegu!*

Tel. 943 83 58 45  
 fotorosanaarruti@gmail.com



KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176  
 Herriko euzarantz

**lzozki naturalak - Opilak**

**arkaitz taberna**  
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
 Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**PIZZERIA**



**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

# Buru ahaltsu horretan



Xabier Sukia

**N**ECekoa pasa eta gero *zutaz oroitzen naiz ene Maialen*. 1997an iritsi zinen lehen aldiz Euskal Herriko finalera, 21 urterekin. Oroitzen naiz 2001ean Andoni Egañarekin buruz-burukoa nola jokatu zenuen Belodromoan. 25 urte zenituen. Andonik 40. Zuk aurtengo finalaren azken txanpa Nerea Ibarzabalekin egitea bezala litzateke hori. Eta geroztik lau buruz-buruko jokatu dituzu, Ametsekin beste bi eta Mendiluzerekin azkena. Bi txapel. Aurrena izan ez zarenean ere aurretik ibili zara.

Orain zortzi urteko txapel hartan *lehengo amonen buru gaineko gobara* gogoan eta aurtan *lehengoekin ta gaurkoengandik txapel hau gerokoentzat*. Agur hori ere denborak onduko du *euskaratik eta euskaraz* hura bezala.

Egun borobila atera zitzaizun. Txapelketa jarri kontua da, gai bakoitzaren aurrean norberak hartzen duen ikusmoldea. Hori izan da behar bada aurtan ere zure ekarpenik interesgarriena. Txapelketa osoan zehar egindako bost bakarkako lanetan, bost pertsonaia jarri dizkiguzu erdigunean: transexuala, etorkina, Ama bakarra, Drogazalea eta prostituta. Errespetu handiz, enpatiaz eta sinesgarritasunez hitz egin digute zure ahotik.

Sakontasun horretan kateatu gabe bertsotan dida! Fresko eta bizi! Futbolariaren larrua aukeratu duzu Real Txinatarrei saldua dagoela esateko. Ez zaiela *penstazeko ordaintzen* esateko. Igogailuetan ez da eguraldiaz hitz egiten, orain *efektu espezialekin* mugitzen dira. Aurtengo jaiotzan Ama Birjina eta Jexuxito mugitu egingo ez ote diren ere...

Eta ez da ezer kasualitatez gertatu. Hautuen ondorio da. Zuk esanda bezala, etengabeko ahalegin, auto-exijentzia eta lanaren emaitza da txapela. Doinu zaharrak berritzea hurrengo txapelketatan tendentzia izan baietz! Bertsolari gazteak Juanito Doronsororen doinutegia arakutzen irudikatzen ditut datozen urteotan. Aurretik zoaz.

20 doinu berririk gora plazaratu dira aurtan. Anitza izan da: hor ziren Benitoren *Itzaltzuko bardoa*, Eñaut Etxamendiren *Agur adiskidiak*, Andres Calamaroren *Paloma*, Txirritaren *Kubako gerrarenak*, Jorge Negreteren *Mexiko lindo*, Luz Casalen *Negra sombra*, Jacques Brelen *Ne Me Quite Pas*...

Miresten ditugun pertsonak normalean zaharragoak izaten dira, izatez eta adinez goiko eskilara maila batean daudenak. Maialen gure kintakoa da, eskolarteko txapelketatan ezagutu genuen elkar, bertsolari gazteen topaketatan... Adin berekoak gara, baina miresmena eragiten digu.

Oinak dantzan *buru ahaltsu horretan* bertsolaritzari oroitarazten *hemen da zure alaba*.

**Ez da ezer kasualitatez gertatu. Hautuen ondorio da. Zuk esanda bezala, etengabeko ahalegin, auto-exijentzia eta lanaren emaitza da txapela.**



Eli Manterola

## Inoiz ez da berandu

**N**an Nikolas bezpera. Beroki handia soinean, eskularruak, bufanda eta txapela jantzi eta kalera. Aurtengoan ere negu giroko sanikolasak! Hotza hezurretaraino sartuta hantxe ginen plazan txupinazoan. Lagunarekin elkartu orduko halaxe esan zidan, harrিতa: *hona netorrela mutil bat ikusi dut manga motzetan!* Barrezka, halaxe erantzun nik: *horrek markatzen dik gaztetasunaren muga, halako hotzarekin kalean lasai asko manga motzetan ibiltzeak!*

Zenbat aldiz ez ote gara aritzen *ora indik gazteak gara!* eta halakoak esaten, gazte izatetik heldu izateko urrats hori etengabe atzeratzen doan honetan. Neurritz kanpoko balioa ez ote diogun ematen gaztetasunari, hara! Zerk ematen digu inbidia? Loturarik edo ardurarik ez izateak? Nerabezarko egonezinak? Gauza berriak ezagutzeko antsietateak? Bitan pentsatu gabe gogoak ematen diguna egiteak?

Askotan iruditzen zait ardurak eta loturak gehitzen doazen neurrian bizi-poza albo batera uzten dugula, eta gaztetako bizitzeko grina berritu nahi izaten dugula. Ikasi beharko genuke heldutan ere gustuko dugun horrekin gozatzen, bitan pentsatu gabe gauza berriak probatu eta ikasten. Inoiz ez baita berandu. Halaxe elkartu gara herriko emakume koadrila bat, inoiz traineru batean sartu gabe, arraunean ikasteko irrikaz. Kirola eginez gozatuz eta taldean elkar goxatuz. Bizipozez eta ilusioz gainezka. Zergatik ez?



# Orion bizitzearen prezioa

Zenbat etxe eraiki dira Orion azken hiru hamarkadetan?  
Ze prezio dute alokairuek? Lortu ditugun datuak oso  
zehatzak ez badira ere, **oriotar askoren kezken sorburua**  
den gaia landu dugu erreportajea.



**TESTUA: I. GAITON**

**ARGAZKIAK: KARKARA**

**E**spainiar Estatuko burbuila inmobiliarioa, kapitalismo garaiko prozesu espekulatibo handiena izan zela adierazi zuen *The Economist* hedabide espezializatuak 2005eko ekainaren 18an. 1997 eta 2007 artean, eraikuntza izan zen ekonomia-aren motor handienetako bat, eta urtean eraikitako etxebizitza kopuruak izugarri egin zuen gora.

Adreiluan oinarritutako hazkunde ekonomiko itxuraz geldiezinak, herritarren gehiegizko zorduntzea izan zuen erregai nagusia; Espainian –eta hego Euskal Herrian– prezioak ia %150 garestitzera ere iritsi ziren. Puztutako zenbaki horiei aurre egin ahal izateko, epe luzeagoan ordaindu zitezkeen kredituak eskatu zituzten erosleek, eta ondorioz, hamar urtean hirukoiztu egin zen herritarren zorduntzea.

EAEn espekulazioak ez zuen Espainiakoaren dimentsio-rik eduki, baina dudarik gabe, eragina jasan zuen. EUSTATen

arabera, 2008an EAEn 103.635 langilek egiten zuten lan eraikuntza sektorean, eta bost urtera zifra 58.847-ra jaitsi zen. Badira beste datu esanguratsu batzuk ere. 1997an obra berrientzat 1.795 lizentzia eman ziren, 2008an 1024, 2009an 578 eta 2016an 518.

#### **Orion 419 etxebizitza huts**

90eko hamarkada hasieratik gaurdaino, Orion 1.060 etxebizitza inguru eraiki dira. Gaur egun 2727 ditugu guztira herrian, eta horietatik 419 hutsak daude; alegia, %15,36-a. Etorkizunera begira, Oriok gehienez 418 etxebizitza gehiago egiteko aukera eskaintzen du. Paloten gunea gehituz gero, guztira 1.148 eraiki ahalko lirateke.

#### **Alokairuak puztuta**

Karmele eta Imanol Garmendiak erabilitako etxebizitzan



salmenta eta alokairuak kudeatzen dituzte, errio ondoan duten bulegoan. Azken urtetan alokairuen prezioetan antzeman dute aldaketarik handiena. Hori dio Karmelek: *Krisiarengatik jendeak pisuak erosteko zailtasunak dituenez, alokairu eskaera asko igo da. Honen ondorioz, prezioak nabarmen garestitu dira.*

Orion etxe merkeenak hilean 450-500 euroren truke alokatu daitezke, baina ez dira asko, eta berehala okupatzen dira. Igogailua duen etxe zahar txukun baten errenta 650 euro inguruan dabil, eta etxe berriena 750-800 eurotan.

### **Etxe zaharren prezioak merkeago**

Azken urtetan merketu egin dira erabilitako etxebizitzaren merkatuko prezioak. Karmeleren esanetan, 270.000 eurotan salgai jarritakoren bat 180.000raino ere jaitsi dute. Gutxi gora behera, Orion metro karratuak 2.200 euroko prezioa du gaur egun; Goiko Kalen eta Anibarko Portuan gutxixeago. Bigarren eskuko etxe berri xamarraren metro karratuak 3.000 euro inguruan balio du.

Garmendiarren gestorian, Orioko etxerik merkeenak 140.000 euroko prezioa dauka, eta egokitze obra egin behar ko litzaioke sartu aurretik. 170.000 euro inguruan, badituzte bizitzeko jartzeko moduko etxeak salgai. Karmeleren hitzetan, orain asko negoziatzen dira zifrak. *Krisiarekin jendea zuhurragoa da, eta pisuak saltzea gehiago kostatzen da. Dena den, azken bi urtetan etxe dezente saldu ditugu, nabari da mugimendu pixka bat.*

“Etxe berrien prezioak 1996tik 2003ra igo ziren gehien, eta 2006 bukaeran jo zuten goia.”

“Orioko Udalean aho batez onartua dago Anibarko Portuan alokairu sozialerako sei etxebizitza egitea.”

### **ZENBAKIA**

# 419

**Etxebizitza huts.** 2017ko abenduaren 15ean Orioko Udalak emandako datuen arabera, Orion 2.727 etxebizitza ditugu, eta horietatik 419 hutsak daude.



Etxe berrien prezioak 1996tik 2003ra hazi ziren gehien, eta 2006 urte bukaeran jo zuten goia. Orion 1992an 1.000 euro inguru balio zituen etxe berrien metro karratuak. 1996an 1.200 euro, 2000an 2000 euro, 2003an 3.500 euro, 2006an 4.800 euro, 2009an 4.000 euro, 2011an 3.700, 2015an 3.600 eta gaur egun 3.800 –gutxi gora beherako batezbesteko datuak.–

### Alokairu sozialerako aukera Anibarko Portuan

Orioko Anibarko Portua auzoan Udalak lokal batzuk dauzka, eta horietan alokairu sozialeko sei etxebizitza egitea aho batez onartuta dago. Eusko Jaurlaritzak prest legoke etxebizitza horien obraren zati bat ordaintzeaz gain alokairuen kudeaketa ere bere kargu hartzeko; beraz, Udalak ez luke inbertsio ekonomiko handirik egin beharko. Itxura guztien arabera, alderdi bat baino gehiagok 2018ko aurrekontuetan proiektu hau gauzatzea proposatuko dute.

### Kooperatibak sortu, etxeak eraikitzeko

Duela hilabete batzuk kooperatiba bat sortzeko saiakera egin zen herrian. Kanean *Orion bizi nahi al duzu?* galdera –gaztekeraz– nahikoa agerian zuten kartelak jarri zituen Orion Bizi taldeak. Etxebizitza berriak eraiki nahi zituzten, merkatukoak baino prezio baxuagoan. Nola? Kooperatiba bidez, promotore pribatu batek egiten duena eginez.

Hiru fase zituen beren proposamenak: bazkideak bildu –35-40 pertsona–, begiz jota zuten Udalaren lur sail bat



erosi, eta etxebizitzak eraiki.

Sustatzaileen arabera, etxe berri baten kostua %20-25 jais-tea aurreikusten zuten. Prezio hauek kalkulatu zituzten beren txostenean: gela bateko etxebizitza 130.000 euro –57m<sup>2</sup>–, bi gelakoa 150.000 euro –76m<sup>2</sup>–, hirukoa 200.000 euro –108m<sup>2</sup>– eta lauakoa 220.000 euro –120m<sup>2</sup>–. Prezioan, garajea eta ganbara barne. Kanean jarritako kartelez gain, Orion Bizi taldeak ez du beste ezer eman argitarara.

### Etxebizitza, eskubide subjektiboa

Etxe berri eta erabilien prezioak merketu egin dira, eta hipoteken interesak baxu daude, baina oraindik ere, Orion garestia da etxebizitza bat erosi, edo batez ere, alokatzea; are gehiago, gazte –eta helduen– egungo lan baldintza makurrak kontuan hartuz. Etxebizitza eskubide subjektiboa dela esan daiteke.

Gaiaren inguruan, Udalean gauza interesgarriak egosiko dira datozen hilabete eta urteetan. Etxe kopuru txikia izan arren, Anibarko Portukoa derrigor gauzatu beharreko proiektua da. Bestalde, Erribera auzoko harrizko parkinean eta Diken etxeak egingo badira, batzuk Babes ofizialekoak izan beharko dute, legeak hala behartuta. Alokairu edo jabetza bidez kudeatuko diren ikusteko dago. Errentaren aldeko apustua egiten ari da Eusko Jaurlaritzak azken aldia. Bestalde, Orioko etxe huts kopuruak oso altua izaten jarraitzen du. Ezin al da hauetan errenta sozial bidez kudeatzeko proiekturen bat egin?



“Hipotekak ez luke hileko diru sarreraren %35a gainditu behar”

## Aitor Hoyos

Orioko Caixabank sukurtsaleko zuzendaria

### Azken hamar urtetan, zein aldaketa nabarmendu dituzu Orioko etxeen sal-erosketan?

Gure bulegoa 2007an ireki zen. Lehen bi edo hiru urtetan merkatu hipotekarioak geldialdia izan zuenez, mailegu gutxiago eman ziren. Azken urtetan mantsotze hori mantendu da, baina 2017an, azken hilabetetan batez ere, Orioko zifrak igo egin dira etxe berri promozio batengatik –Muntokoak–.

Prezioei dagokienez, etxeak krisi aurreko zifretan dabiltzala esan daiteke, gutxi gora behera: metro karratua 3.000 eta 3684 euro artean dago, lokalizazioaren arabera. Epe labur eta ertainean, ez da aurreikusten metro karratuaren prezioa KPIa baino gehiago igotzea.

### Nola dago Euriborra? Eta interesak?

Momentu honetan urtebetera -0,19%ra dago, tendentzia negatiboarekin, baina gure aurreikuspenen arabera, hemen-dik hiru urtera balore positiboan egongo da, goraka doa. Oraintxe 20 urteko hipoteka finko baten interesa %2 ingurukoa da, bezeroak banketxean soldata, seguru eta aurrez-kien zerbitzuak kontratatuz gero. Duela urte batzuetatik, gure banketxeak hipoteka finkoaren aldeko jarrera du.

### Etxe bat erosteko momentu ona al da?

Nire ustez, bai. Mailegu hipotekarioen eskaintza lehiakorra da, eta etxebizitzaren prezioak ere aurreko urteetan baino erakargarriagoak dira, dagoeneko pixka bat igotzen hasi diren arren.

### Zebaldintza jartzen dituzue hipoteka bat emateko?

Etxebizitzaren kostuaren %20a erosleak aurreratu behar du. Banketxeak gehienez %80 jartzen du gaur egun. Bezeroak banketxeko kontuan irregulartasunik ez izatea ere hartzen da kontutan.

### Soldataren ze proportzio bideratu behar da hipotekara gehienez?

Ez luke diru sarreraren %35a gainditu behar.

## Koldo M. Zabalza

Ekonomia eta enpresa zientzietan Doktorea eta EHUko irakaslea

### Zein egoeratan dago ekonomia EAEn?

2016an euskal ekonomiak krisiaren aurreko BPGaren maila berreskuratu zuen. 2017an goranzko joerak jarraitzen du, %3-ko hazkundearekin. Krisiarekin herritarrek galdutako ahalmen ekonomikoa handia izan da, Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluaren arabera galera %5ekoa. Gaur egun egoera hobetzen ari den arren, ez da langileen soldatetan antzematen. Ekonomia hazkundearen irabazien banaketak justua izan behar du.

### Zerbait ikasi al dugu krisiarekin?

Gobernuek, banku zentralak, gainbegiratzailerak eta banku-erregulatzailerak finantza sistema kontrolatzeko tresnak eta erregulazioak hobetu behar dituzte. Esparru horretan aurrerapenak egon dira, baina ez dira nahikoa izan.

### Etxe bat erosteko garai ona al da orain? Soldataren ze proportzio bideratu behar da hipotekara gehienez?

Gaur egun, merkatuan etxebizitza berrien eskasia dago, eta interesgarria litzateke eraikuntza berriaren hornikuntza handitzea. Bestalde, interes-tasak nahikoa lagungarriak dira, Euriborra 2016ko otsailetik balio negatiboan (-0,189%)



“Ekonomiaren hobekuntza ez da soldatetan antzeman”

baitago. Jendeak hipotekak amortizatzeke batez beste 18 urte behar dituela kontuan hartuz, eta Euriborrak gora egin dezakeela jakinik, orain hipoteka bat hartuz gero, interes finkokoa izan daiteke egokiena. Eroso bizi ahal izateko, hile-oro ordaindu beharreko zifrak ez luke soldata garbiaren %25a gainditu behar.



# "Gustura gaude Muntón amaitu berri dugun proiektuarekin"

**Pedro Ayestaran, Aitor Garmendia eta J.L. Ayestaran**

Inmobiliaria Orio



Inmobiliaria Oriok 1966an egin zuen lehen obra herrian, eta aurtengo udazkenean bukatu dute azkena. Pozik daude egindako lanarekin, besteak beste, A Ziurtagiri Energetikoa jaso dutelako Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

## **50 urte bete zituen ia zenpresak.**

Gure familien aurreko jenerazioek sortu zuten Orion, 60eko hamarkadan. Lehen eraikinak hemen egin ostean, bizpahiru hamarkadetan Zarautzen aritu ginen lanean. Dagoeneko, eskar-

mentu handia dugu etxebizitzaren sektorean.

## **90. hamarkada hasieran itzuli zineten Oriora, Erriberetako etxeak egitera.**

Hori da, eta ordutik hemen jarraitzen dugu. Gustura gaude urte hauetan Orion egindakoarekin, eta dirudienez, bezeroak ere bai.

## **Urte guzti hauetan, herriko kirolari babes ekonomiko handia eman diozue.**

Urte askotan babestu dugu Orioko traineru estropada, adibidez. Futbol taldeari lagundu izan diogu, eta txi-

rrindulari itzulien antolaketan ere bai. **Oraintxe bukatu duzue Muntón proiektua. Etxebizitza guztiak saldu al dituzue?**

Gela bateko apartamentu bat geratzen zaigu merkatuan, beste dena martxo onean saldu da. Etxeak egiteko tramitazioekin hasi ginenetik gaurdaino, ia hamabi urte pasa dira. Luzea izan da prozesua.

## **Herriaren onurarako zerbitzu ugari eskaini dituzue inguru horretan.**

Etxebizitzak egiteaz gain, beti saiatzen gara herritarren ongizatea hobetuko duten proiektuak gauzatzen: futbol zelaia, ondoko aparkaleku publikoa, supermerkatua, Orioko Ikastolarentzat zati bat, paddle eta tenis pistak... Muntón inguruan sortu den guneak, herriari bizi handia eman dio.

## **Horrela, jabetza pribatukoak ziren lursailak herritarrek erabili ditzakete.**

Hori da. Etxeak eraikitzearen truke, gure lursailen zatiak aipaturiko instalazioak egiteko erabiltzen dira.

## **Urola Kostan lehenak izan zarete A Ziurtagiri Energetikoa lortzen. Zer da zehazki?**

Muntón amaitu berri dugun eraikinari eman diote. Etxebizitzek CO2 emisio baxua eta kontsumo energetiko gutxietua dituztela bermatzen du ziurtagiriak. Urola Kostan, txalet estiloko eraikin batzuk bazuten, baina etxe bloke batean lortzen lehenak izan gara.

## **Aurrera begira, ba al duzue Orion lanean jarraitzeko asmorik?**

Dikeko lursailen zati bat gurea da, eta Udalak markatzen duen ildoaren arabera, bertako proiektuan parte hartzeko asmoa dugu. Laster aurkeztuko diegu agintariei gure proposamena.

**Inmobiliaria Orio**

Nafarroa kalea, 13, 20800 Zarautz, Tel. 943 89 44 33, orio@inmobiliaria-orio.com

# Que viva Egaña



Xabier Etxeberria

**Irlandara bizitzera etorri berritan, alaben zain eskola atarian beste gurasoekin hitz egitera ausartzen nintzenean, eulia kaka-mokordora nola, elkarrizketa ere modu berean txokoratzen zen.**

ire ijito abizenarekin bat datozen patilla luzeengatik izango da beharbada, edo beltzaran samarra naizelako agian, edota ingelesez dudan azeno traketsagatik seguruenen, baina kontua da atzerrira joaten naizen gutzietan, lehenago edo beranduago, ataka beretsuan suertatzen naizela:

- Are you Spanish?
- (Mekautentu...) No, Basque.
- Ah.... sorry.

Irlanda ere ez da salbuespena izan. Hona bizitzera etorri berritan, alaben zain eskola atarian beste gurasoekin hitz egitera ausartzen nintzenean, eulia kaka-mokordora nola, elkarrizketa ere modu berean txokoratzen zen, eguraldiaren aitzakian ia beti:

- Irlandan euria besterik ez du egiten. Eguraldi hobea izango duzue Espainian!

Esprikazio luzea etortzen zen orduan nire aldetik. Ezetz, ez ginela espainiarrak, euskaldunak baizik. Baietz, Irlanda apur bat bustiagoea eta hotzagoea zela, baina ez zegoela hain besteko alderik Euskal Herriarekiko, gure probintzian behintzat antzeko eguraldia genuela. Eta, behin abaila har-

tuta, pakete guztia sartzen nien: hizkuntza ezberdin bat –hitz egiten– dugula, probintzia batzuk Espainian eta besteak Frantzian daudela, txalaparta, bertsoak eta gora Euskadi ataskatuta.

Horregatik, eskolakoek jada ez didate horrelako galderarik egiten –ez espainiarrak naizela pentsatzen ez dutelako, baizik eta nire matraka berriz ez entzuteagatik–. Tregua moduko bat izan dut ondorioz.

Tregua tranpa izan da ordea. Etorri baitira familiakoak bishitan eta, jakina, hemengo txoko politak ikusi ondoren pub batean bukatu dugu eguna. Egurrezko aulki sendoak, tximi-niaren epela, guinness bana esku artean. Propina gainera: hiru gizon musika jotzen eta jendea kantari. Hurbildu zaigu haietako bat eta galdera, ea gu ere abesti bat kantatzera animatuko garen. Guinnessak eta giroak legamituta, baietz guk. Pozik. Musikariengana gerturatzeko altxatu garenean, baina, ustekabean ongi-etorriko pieza jo digute: Laralaralarara, que viva Españaaaaa!

Ia buelta eman eta korrika alde egin dugu. Edozein hasten zaie azaltzen euskaldunak garela, euskara, bertsoak...Dedio. Gutxien gutxienean que viva Egaña abestu izan baligute.



Bertako enpresako teknikariak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

# Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

**O**spakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliarik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan ez ezik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehene-

tik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi izaten dira. Teknikariek egiten duten lan onak gerora dauden abisukopurua txikitu egiten du, nabarmen.

## Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsua bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoan, komertzialen bisitetan, administraziokoarekin hitz egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu gabe eta iraupen-konpromiso gabe.

## Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromisorik gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. *Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hori ia erdira jaiste, hemen ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan, diote enpresakoek*

## Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonotara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa.

943-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen hitza euskaraz jasota.

# SAN NIKO LAS 2017





# Jaitsi egin da euskararen erabilera Orioko kaleetan

Orioko Euskara Zerbitzuak bi urtetik behin neurtzen du euskararen erabilera kaleetan. Aurtengo maiatzean egin da azken neurketa, eta konfirmatu egin da lehendik sumatzen zen joera: euskararen erabilera jaitsi egin da kalean, bereziki helduen artean -25-64 urtekoen artean-.

TESTUA: J. ZABALETA

IRUDIAK: KARKARA

**H**elduek, batez beste, %50 egiten dute euskaraz kalean, neurketaren arabera -%49,50, zehatz esateko-. Inoizko daturik baxuena da, 1989an lehen neurketa egin zenetik. Haurrek eta gazteek, berriz, %75 inguru egiten dute euskaraz; eta zaharrek, %62. Erabilera-indize orokorra, adin guztiak kontuan hartuta, %60koa da.

Euskararen erabilerrari dagokionez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizasemeen artean. Berdin samar egiten dute.

Bestalde, nabarmena da, haurrak tartean direnean, helduek dezentez gehiago egiten dutela euskaraz: elkarrizketan haurrik ez dagoenean, nagusiek %51 egiten dute euskaraz; baina, haurrak tartean direnean, portzentaje hori %67ra igo-tzen da.

## Erabilera jaisten

Azken urteotan jaitsi egin da Orion euskararen kaleko erabilera. Eta ez da Orioko kasua bakarrik: joera orokorra da herri

euskaldunenetan. Gauza bera gertatzen ari da, esaterako, Udallerri Euskaldunen Mankomunitatea -UEMA- osatzen duten herri gehienetan.


Paradoxikoa da, nolabait: UEMAko herrietan -eta Orion ere bai, beraz- egin da ahaleginik handiena euskararen erabilera bultzatzeko eta egoera asko hobetu da alor formaletan: udaletan, ikastetxeetan, komunikabideetan... Horietan guztietan aurrerapauso handiak eman ditu euskaraz; baina, aldi berean, indarra galtzen ari da bere-bereak zituen esparrutan: kalean, lagunartean, familian...

## Mila eta bostehun biztanle gehiago

Azken hamabost urteotan Orio handitu egin da eta, horrekin batera, biztanle-kopurua ere bai: 4.500 inguru oriotar ginen 2001ean eta 6.000ren bueltan gabiltza dagoeneko. 1.500 biztanle berri dira, populazioaren %33 gehiago.

Horrekin batera, euskaldunen portzentajea ere jaitsi egin da: 2001ean %80 ziren euskaraz *ondo* hitz egiten zuten oriotarrak; 2011n, berriz, %76 -horiek dira dauzkagun azken da-

# Euskararen erabilera datuak



tuak; datorren urtean publikatuko dira 2016koak-.



Arrate Illaro

## “Egidazu euskaraz, ulertzen dizut eta”

**Hitz egin zein ez, euskara ulertzen duten pertsonak dira. Gainontzekoek beraiei euskaraz egitea nahi lukete, edo, bestela, ez zaie axola nola hitz egiten diegun, ulertzen dute eta.**

uriosoa da *belarripresten* kasua: aspalditik existitzen dira, baina hitza sortu behar izan dugu ikus ditzagun. Hitz egin zein ez, euskara ulertzen duten pertsonak dira. Are gehiago, gainontzekoek beraiei euskaraz egitea nahi lukete, edo, bestela, ez zaie axola nola hitz egiten diegun, ulertzen dute eta. *Ahobiziek*, ordea, soilik *ahobiziek*in hitz egiteko lizentzia hartzen dugu normalean, hau da, euskaraz hitz egitea erabakitzen duten lagunekin. Errespetuaren izenean, edo badaezpada, erdarara pasatzen gara sarritan. Baina, zer gertatzen da errespetua bakoitzak nahi duen bezala hitz egitea dela erabakitzen dugunean?

Horixe da azken bi urteetan Euskal Herriko hainbat txokotako herritarrek adostasunez egin duten ariketa kolektiboa, hala nola Lasarten, Agurainen, Deustun, Baionan zein Hernanin. Inertziak apurtu eta euskara ulertzen duten lagunekin, senideekin, lankideekin zein ezagunekin euskaraz egitea erabaki dute milaka *ahobizik*, eta beste milaka *belarriprestek* beraiei euskaraz egiteko eskaera egin diete ingurukoiei.

Emaitzak nabarmenak eta ilusionagarriak izaten ari dira: elkarrizketa elebidunak posible direla erakutsi dute, eta, horrez gain, ordura arte ausartzen ez ziren *belarriprest* askok euskaraz aritzeko urratsa eman dute. Pauso hori, gainera, gertukoekin egin dute, beren eguneroko harremanetan, hain zuzen.

Euskal Herriko herritarren ia erdiek ulertzen dute euskara, eta, Orioren kasuan, gehienek. Beraz, baldintzak egokiak dira, hala nahi dugun kasuetan, euskaraz hitz egiten duten guztiekin ez ezik, ulertzen duten guztiekin ere gure hizkuntzan aritzeko. *Ahobizi* izateko aukerak biderka ditzakegu. Horretarako, lehen ariketa proposatuko dizuet: saia gaitezten gure inguruko *belarriprestek* identifikatzen. Agian ez zaizkigu burura berehala etorriko, baina ziur uste baino gehiago direla.



**INDO**

**Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA**

**Ubegun industriagunea, 4**

**Tel. 943 894 024**

**Fax. 943 130 144**

**20809 AIA - ORIO**







Eliza gainezka: hiru apaiz, sei monagillo, pulpitua... beste garai batzuk. EZEZAGUNA

# Meza erdian mobila jo eta jo

## Oroimenaren kutxa

**E**liza gainezka: hiru apaiz, sei monagillo, pulpitua... beste garai batzuk. Ezezaguna izan gauza batzuk ederki aldatu dira azken urteotan. Goiko argazkian ikusten den bezala, orain dela 50 urte inguru, Orioko San Nikolas parrokiak lau apaiz eta monagillo pila bat zituen, eta pulpitua. Igandean bost meza ospatzen ziren. Emakumeak ez zeukan lekurik, ez aldarean ez koruan. Jauna hartu aurretik ezin zen gosaldu, baraurik behar zen, aurretik apaizari bekatuak aitortuta.

Aldaketa asko izan dira bai. Horietako batzuk, teknologia berriek ekarriak: Orain kanpaiak jotzeko kanpandorrera igo beharrik ez dago. Herriak kantatu dezan, kantuen hitzak pantailan agertzen dira aldarean, karaoke moduan. Gabonetako belena bizia da, mugimendua du: errota, burdinolako mailua, erreka ura... Batzuetan okerra gertatzea ez da harriztekoa; adibidez, kantuen pantailan *Erruki Jauna* agertu beharrean, *Erruki Juana* agertzea.

Teknologia berriek erabilera okerrak ekartzea normala da. San Nikolas hirugarrenean gertatu zen, orain dela urte gutxi. Ama Birjina eguna zen, abenduaren 8a. Egun hartan senarra meza nagusira joan zen, 11:00etan. Emaztea ez, etxea txukundu nahi zuen eta plazan elkartuko zirela esan zion senarrari, meza ondoren. Gizona etxetik atera aurretik, andreak telefonoa sartu zion txaketako patrikan, erosi berria zion mobila. Baina esatea ahaztu.

Emazteak, hamabiak laurden gutxi aldean, meza bukatuta zegoelakoan, bere mobila hartu eta gizonari deitu zion. Eliza-ko banku batean eserita, meza entzuten zegoen senarrak, telefonoa jotzen entzun zuen, eta aldameneko emakumeari esan zion: *aizu, telefonoa jo ta jo ari zaizu*. Erantzun bakarra: emakumeak muturra okertzea. Telefono-hotsa isildu egin

zen. Baina handik minutu batera berriro jotzen ari zen. Gizonak, osterarenean, emakumeari begiratu eta, telefonoa itzaltzeko batera asmorik ez zuela konturatuta, berriro eskatu zion hura isiltzeko. Emakumeak, bigarreanean, aurpegi txarra jartzeaz gain, haserre erantzun zion: *nik ez daukat telefonorik*.

Gizonak ez zuen ezer ulertzen, baina telefonoa isildu egin zen. Gaitzerdi! Jaunartzeko garaia iritsi zen. Gizona zutitu eta aldarera bidean abiatu zen pasilloan. Baina emaztea ez zegoen etsitzeko, mobilak berriro jo zuen senarraren txaketaren patrikan. Orduantxe konturatu zen: *baina telefonoa nere txaketan zegok eta!*, mobila patrikatik atera eta hura itzaltzen saiatu zen. Ez zuen lan erraza, tramankulu madarikatuaren botoiak sakatu eta sakatu eta trastea isiltzen ez! Botoiarekin asmatu zuenerako, izerdi patsetan zen, aurpegiak kolore guztiak hartuak zizkion.

Gerora, egun hartakoa gogoratu eta pasadizo hura kontatzen duenean, gizonak esaten du momentu hartan moilan egon izan balitz tramankulu zerri hura hartu eta frantses fabrikaraino botako zuela harrika.

Jaunartzea bukatuta, apaizak ez zeukan ahaztuta kristau haren telefonoak jaunartzeko garaian sortutako zarata eta iskanbila. Aukera baliatu zuen herritarrei abisua emateko: *laster kursilloa eman beharko degu, telefonoa erabiltzen ikas-teko*. Meza bukatuta, gizona sakristiara ausartu zen, *aizu, hau eta hau, errua ez da nirea* hasi zitzaion apaizari. Apaizak, berriz: *ez, nerea da errua*. Eta *ez, zurea ere ez, nere andrearena*. Ama Birjinaren egun hartan ez zen dibortziorik izan, baina ia-ia. Geroztik, Orioko elizaren zimitorioko atean kartel bat dago jarrita herritarrentzat: *Jaungoikoarekin hitz egiteko ez da behar mobilik*.

INAKI ITURAIN

# azkue

## karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

**GARMENDIA**  
HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
informacion@garmendiagestion.com

## SU KIA

TABERNA - JATEETEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPAZI!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- E-GUNEKO MENJIA
- E-GUNEKARIAK
- OGIA

TF: 943 892 128  
ABARONEN 16, 1. BARRIOA

## Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

Endala Enparantza, 1  
20810 Orrio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

## Azkue

Tf: 943 130 438

## Azkue

## urbide

iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkata Kalea, 4  
20800 Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

## URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskaInet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

## KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com  
665 70 33 47

## Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

## TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orrio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

## ANOBA TXIBI S.L.

### KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

## IGLESIAS

### SARRAILAGILEAK

24 OROKORREAN ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascarraigerros@yahoo.es  
ZOBIO ORIO

- ATYAK INKOTZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATYAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA



# “Gaur egun, haurrak baino hobeto zaintzen ditugu idiak”

## **Eusebio Arzadun**

Itzaina

Hamalau urte zituenetik dabil dematan Arzadun, auzokide bati laguntzen lehenbizi, bere idi propioekin gero. Urte ona izan du 2017a, jokatu duen guztia irabazi baitu, tartean Aiako Kintopeko idi probak.

## M. GARCIA

Andatza auzoko Etxeberri baserrianjaio zen Eusebio Arzadun -Aia, 1961-. Han jaio zen, eta han bizi da orain ere. Lorezain ofizioz, Donostiako Udalean aritzen da egunean zehar. Etxera itzultzean, berriz, idiak ditu afizio eta pasio. Aurten poz iturri ere izan ditu animaliak; hiru apustu eta Kintopeko probak jokatuta, guztietatik bueltatu baita txapeldun etxera. Idiekin sartutako orduak fruituak eman dituztela-eta, pozik dago Arzadun.

**Noiz hasi zinen idiekin?**

14 urte nituen garaian hasi nintzen, tailerrean bazen idiak ekarri zituen bat, Arrillaga, eta harekin hasi nintzen idiak prestatzen eta mendira eramaten. Gero, baserrian ere aritzen nintzen ganaduekin uztarrian, aitarekin. Gustatu egin zitzaidan eta horrela hasi nintzen idiekin.

**Zein probaleku duzu kuttunena?**

Herrikoa beti izaten da berezia. Etxeak gehiago erakartzen du. Gainontzean, Bizkaira ere gustura joaten naiz eta, orokorrean, ez daukat arazorik edozein probalekurekin.

**Eta zein da zuretzat hoberena?**

Ez da probaleku hobeagorik, idiak dira gakoa. Animalia prestatu, hezi, uztarrian lanean jarri... ordu asko sartu behar dira idia pestatzeko.

**Langogorra al da?**

Bai, asko gustatu behar zaizu hau egiteko. Ordu asko pasa behar dira eta animaliarekin ibili egin behar da. Batzuetan, asko ibiliagatik ere atera ohi dira idi txarrak, baina ez dago ibili gabeko onik. Beste kiroletan bezala, entrenatu eta saiatu gabe ez dago emaitza onik.

Guk gazterik ekartzen ditugu idiak, eta orain ditudanak bost urte pasatxo izango dituzte. Galiziatik ekartzen ditugu, eta etxean hezten ditugu.

**Txahal txiki horietatik idi pare txapeldun bat ateratzeko, zenbat denbora behar izaten da?**

Batzuek sei urterekin ateratzen dituzte, baina ni ez naiz zalea, oraindik bigunak egoten direla iruditzen zait. Nik 8-9 urterekin ateratzen ditut, etxean ondo ibili eta gero; pazientzia izan behar da.

**Idien pisua mantentzea zaila al da?**

1.100 kilo pisatu behar du bikoteak eta hortik pasatzen den kilo bakoitzeko, kilo eta erdiko gainzama jarri behar dugu harrian. Pisutik ez pasatzeko azken egunetan dieta berezia egiten diegu eta hustu egiten diegu sabela, ahalik eta kilo gutxien hartzeko. Nahiko komeria ibiltzen dugu horretarako.

**Zenbat idi dituzu?**

Lau idi ditut orain dematan parte-hartzen dutenak, eta badut beste bikote gazte bat, pare bat urtean prest egongo dena kintopekotan irteteko.



IBON ERRAZU

“Federazioak animaliekiko errespetu handiagoa egotea bultzatu du. Zorrotzak dira, eta beharrezkoa ikusten dutenean txartela ateratzen dute.”



### **Bikote berak ibiltzen al dituzu beti?**

Orain arte hala egin dut, behintzat. Idi asko dituztenek nahastu egiten dituzte, aukera dutelako. Gu, ordea, bi idi ekarri eta haiekin aritzen gara denbora guztian.

### **Idiak plazara eraman eta ekarri egiteko nola moldatzen zarete?**

Kamioi txiki bat dut eta hor mugitzen ditut idiak. Proba edo apustua Aian denean, goizean pisaketa egin eta etxera ekartzen ditugu iluntzera arte. Bizkaian denean, berriz, han inguruan uzten ditut eguna pasatzen, konfiantzazko norbaiten baserrian.

### **Azkenaldian irabazi dituzu proba batzuk.**

Lau proba jokatu ditut aurten: hiru apostu eta kintopeko probak, eta guztiak irabazi ditut. Urte ona izan da. Kintopeko idi probatan bigarren geratu zenak bota zidan azken apustua, egun berean ez genuen jokatu eta aurrez aurreko apustua egin nahi zuela.

### **Espero al zenuen manta irabaztea?**

Irabaztea ez dakit baina hortxe ibiliko nintzela pentsatzen nuen. Idi pare onak zeudela ikusten nuen, Iñaki Olidenenak, adibidez, baina nire artean pentsatzen nuen estuasun bat emateko moduan ibiliko nintzela. Esperantza banuen, behintzat.

### **Federazioak kontrolatzen ditu proba guztiak, zorrotzak al dira?**

Garai batean, esaterako, akuiluarekin gogorrago eragiten zi-

tzaien idiei. Orain, hori ikusten badute, segituan hartzen diete kargu itzainei eta kanporatu ere egiten dituzte probatik. Federazioak animaliekiko errespetu handiagoa egotea bultzatu du. Zorrotzak dira, eta beharrezkoa ikusten dutenean txartela ateratzen dute. Horretarako daude.

### **Animalista askok demak kritikatzten dituzte, animaliek sufritu egiten dutelako.**

Gaur egun, haurrak baino hobeto zaintzen ditugu idiak. Pixkabat izerditu orduko mantak aldatzen dizkiegu, epelean izaten ditugu, jana ahal den onena ematen diegu... Garai batean, baserriko lanerako erabiltzen zirenean, goizean uztartu eta egun osoa uztarrian pasatzen zuten, eta jan ere justua egiten zuten. Orain, kapritxoan zaintzen ditugu.

### **Asko aldatu al dira demak garai batetik hona?**


Jende gutxiago aritzen da idiekin gaur egun, diru gutxiago dago eta jendeak nahiago izaten du beste planak egitea idietan gastatzea baino. Hori bai, apustueta beti dago jendea ikusten, auzoetatik gazte jendea etortzen da.

Idiekin ere ibiltzen dira gazte batzuk Bizkaia aldean.

Orion eta Aian, Oliden eta Erreista ditugu, eta Izeta ere zerbait jarduten da. Garai batean askoz gehiago ibiltzen ginen.

### **Nola ikusten duzu idi demen etorkizuna?**

Lehen, lana egiteko idiak izaten ziren baserrietan, eta errazagoa zen idi pare ona plazara eramatea. Gaur egun, horretarako ekarri eta hezi behar ditu norberak, eta jende gutxiago animatzen da. Zail dago demen etorkizuna.



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL/F - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO



**AIRIATZA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

*Xapa zapataria*

*eman beste aukera bat zure zapata eta oragarriei*



Herriko plaza. Orio

**DEFENTSA PERTSONALA 2017/18**



Izen emateak eta informazio gehiago:

**KARELA** kirolegia

943 89 44 28

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO  
[ sarrera Arrantzale kaleak ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

**K-U-K-U-A-R-R-I**  
ELEKTRIZATZATEA



Tel.943 100 181  
Mobila 640 281 368  
Zigordia, 52 - Beheia C  
20800 Zarautz

kukuuarri@kukuuarri.com

**MENDIZABAL**  
ARROZTEGIA

Nearriko arnairak  
eta igarlarak

943 831 175 Altveni bideo  
645 708 491 Beti-Auzi etxea  
mendizarozgi.net 20810 Aia-Orio

**ZINKU**

Igeltseritza orokorra  
Etsako erretzioa mota guztiak  
tabiokak, batru galak, igeltsera...

Ander Zinkunegui  
667 740 279

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GORDAK

Artzaga 9, 20810 Orio  
Tel. 943 13 15 17

**BODEGAS**  
*Gailur*

www.bodegasgailur.com

Amabar Erronka

**ZUDUGARAI**



Galariako Txabolina

Tel. 943 83 03 88  
Fax 943 83 54 52  
bakolizudugarai@trankul.net  
www.bakolizudugarai.com

**Katu**  
**MORIA**

ΕΠΙΧΕΙΡΗΣΙΣ ΚΑΤΑΦΑΓΩΝ

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO

Λαρισιανάκι  
668 89 11 20

943 11 66 99

www.katunorf10.com



# “Txikitan nire arlorik gustukoena zen soinketa”

## Ramon Erkizia

Soinketako praktiketako irakaslea

Ramon Erkizia oriotarrak gure eskolan egin ditu irakasle-ikasketetako praktikak. Bera gorputz hezkuntzako espezialitatea egiten ari da.

### Zergatik aukeratu zenuen eskola hau?

Gehienbat, eskola txiki baten martxa ezagutu nahi nuelako. Bestalde, Aiako herriak baliabide natural asko ditu eta horiek asko erakartzen naute.

### Nolatan aukeratu zenuen lan hau?

Betidanik gustatu izan zaidalako haurrekin harremana izatea: Orion ume talde batzuen entrenatzailea naiz, aisialdiko begiralea ere bai.. Azken finean, uste dut lanbide honetarako balio dudala.

### Zure ustez, gustura joaten al dira ikasleak soinketara?

Niri hala iruditzen zait, zuentzako oso arlo atsegina izaten dela esango nuke: kirola, talde-jolasak...

### Hau al da zure lehengo praktikaldia?

Ez, hau hirugarrena dut.

### Non nahiago zenuke lan egin, eskola txiki ala handi batean?

Nire praktikaldi hauetan ikusi dudana-gatik, uste dut gusturago egingo nukeela lana eskola txiki batean, Aiako eskolan, adibidez. Baina zuen adineko haurrei soinketa ematea egokituz gero, edozein ikastetxetan jardungo nintzateke pozik.

### Nola prestatzen dituzu klaseak?

Kontutan hartzen dugu zuengandik zer lortu nahi dugun, eta horren arabera klasea diseinatzen dugu: jarduerak, jolasak... beti ere aintzat hartuz zuentzako ere proposamen gustagarria izatea.

### Txikitatik pentsatzen al zenuen soinketak irakaslea izatea?

Eskolaumea nintzenean, nire arlorik gustukoena soinketa zen, horregatik umetatik pentsatu izan dut handitan gorputz hezkuntzaren inguruan lan egin behar nuela.

### Entrenatzaile ere bazara, zer nahiago duzu hori ala irakasle lana?

Irakasle izatea nahiago dut, argi daukat.

### Zer eskaintze dio haur bati soinketak?

Mugimendua, ariketa fisikoa, kideen arteko elkarrekin-tza, eta honen bitartez zuen arteko ezagutza eta harremana sendotzeko aukera ona.

### Nola ikusten dituzu eskola-kirola, eta kirol federatua?

Errendimenduak, markak eta sailkapenak alde batera utzita, eskola kirolak aukera bat izan behar du ikasle guztiok ahalik eta kirol gehien probatu eta ezagutzeko. Gero, behin argi izanda bakoitzak zer kirol aukeratu nahi duen, beste helburuen bila joan liteke.



Allende Lertxundi

## Iragarki sexsistak

**G**aurko honetan iragarki sexistei buruz mintzatu nahi. Gure mundu hau gero eta sexistagoa bihurtzen ari da eta gaur nik zergatik baieztatzen dudan hau adieraziko dizuet.

Anuntzioak egiten direnean ontzi-garbigailuak aurkezten, adibidez, neskak dituzte eta fisikoki ezaugarri minimo batzuk eman behar izaten dute bestela ez dute balio. Niretzat, berdin dio zeinek piztu, ontzi-garbigailuak berdin garbituko du eta.

Bestea, emakume bat kantaria denean, diskoen portadan, ia beti, neskak larru-gorritan ateratzen dira eta hori niretzat mutilak erakartzeko egiten dute baino ez dute egin beharrik.

Mutilak, berriz, beti kotxeak gidatzen ateratzen dira. Ez dakit hori zergatik egiten duten, ez al dago kotxerik neskentzako?

Bukatzeke umeei zuzendutako iragarkietara pasako gara. Olentzeroak, Erregeak... direla eta katalogoak atalka daude banatuta. Lehenengo ume txikientzako gauzak, ondoren sukaldeak, panpinak, etxeak... hori bai, dena arrosez eta neskak erabiltzaile moduan. Segidan kotxeak, dinosauroak eta borrokako gauzak, baina hemen mutilak bakarrik agertzen dira. Beno, espero dut iritzi honen jendeari buruan daukan teoria aldatzea.

# “Jubilatu arren, argazkiak egiten jarraituko dut”

## Maite Garcia

Argazkilaria

Maite Garciak udazken honetan itxi du Ramiro aitak 1961ean zabaldu zuen negozioa. Bien artean, 50 urtetik gora eman dituzte Orioko bazterrak, ekitaldiak, ospakizunak eta herritarrak dokumentatzen.

### I. GAITON

Hemendik aurrera, nahikoa denbora izango du kamera lepotik plazerez zintzilikatu eta patxadaz bidaiatzeko. Argazkiak egiteko, telefono mugikorra ez zaiola gustatzen aitortu digu; argazkilaritza berarentzat droga bat dela ere bai.

#### **Altxor ederra izango da aita eta bion artxiboa.**

Ondo gordeta ditut argazki eta negatibo guztiak. Denbora dudanean, dena behar bezala aztertu eta irudi onenekin zerbait egitea gustatuko litzaidake.

#### **Txikitatik ikusiko zenuen bera kamera eta argazki artean.**

Arin & Embilen egiten zuen lan. Saltsero samarra zen, eta argazki kamera bat erosi zuen. Garai hartan, oso gutxi izango ziren herrian, eta jendeari erretratuak egiten hasi zen. Auto-didakta zenez, liburu artean gogoratzen dut, bere kabuz ikasten. Etxean laborategi eta estudio txiki bat muntatu zituen aurrena. Argazkilaritza geroz eta gehiago gustatzen zitzaiola ikusirik, 1961 zabaldu zuen negozioa.

#### **Argazkilaria fina zen Ramiro.**

Bai, oso saiatua. Gipuzkoako argazkilaria elkarte bateko kidea zen. Ikastaroak, bidaiak eta halakoak antolatzen zituzten, beste argazkilarien lanak ikusi ikasten jarraitzeko.

#### **Bera izan al zenuen maisu?**

Umetan karreteak errebelatzeko likidoak, hautsak etab. maneiatzen erakutsi zidan. Gero, 16 urterekin Madrilen izan nintzen urtebetez, akademia batean.

#### **Gerora, izan al duzu gogoan berak esandako zerbait?**

Nire lan batzuei begira zebilela, bere maila gainditu nuela aitortu zidan behin. Ederra izan zen aitarengandik hori entzutea.

#### **Argazkilaria profesionala izan aurretik, irakaskuntzan aritu zinen.**

Madrildik etorri eta aitarekin bi urtez lan egin ostean, ofizio berriren bat ikasteko beharra sentitu nuen. Unibertsitatera joan nintzen, irakasle-eskolara. Karrera amaituta, 15 urtez izan nintzen irakasle. 1992an aita jubilatu zenean, berari erreleboa hartu eta argazkigintza profesionalean zentratzea erabaki nuen. Etxeko negozioari jarraipena eman nahi nion.

#### **Argazkilaritza asko aldatu da urte gutxian. Analogikotik digitalerako saltoa ematea gogorra egin al zitzazun?**

Ez, argi ikusi nuen etorkizuna hortik zetorrela. Berehala hasi nintzen ikastaroak egin eta formatzen. Anekdotatxo bat ere badut gogoan, honen harira. Photoshopekin lanean nabilen batean, aita inguruan zebilen. Ordenagailuarekin argazkiari beltzune bat nola kendu erakutsi nionean, ezin zuen sinetsi. *Ene, nik ia bista ere galdu dut halakoak egiten!* bota zidan harriduraz. Digitalizazioak azkarrago lan egiteko aukera jarri zigun eskura.

#### **Alde txarren bat ere ekarriko zuen.**

Bai. Kamera analogikoekin gehiago pentsatu behar zen klik egin aurretik, eta horrek azken emaitza hobetzen zuen. Argazki kamera digitalekin, orokorrean, ateratzen den argazki kantitatea handiagoa da, eta ez da hainbeste pentsatzen. Bestalde, lehen bezero asko etortzen zen dendara argazkiak errebelatu eta kopiak egitera. Kamera digitalekin diru sarre-hori asko jaitzi zen.

#### **Urte hauetan guztietan, lanaz gain argazki asko egin al dituzu afizioz?**





“Mugikorrarekin egiten ditugun argazkiek funtzio jakin bat bete dezakete, baina kalitatez, gutxi dira onak. ”

Bai. Bidaietan, adibidez, asko. Oraindik ere argazki kamera eramaten dut lepoan. Lagunek mugikorrarekin ateratzen dituzte argazkiak, baina gero nireak nahi izaten dituzte... kar kar kar.

**Ikaragarria da mugikorrarekin ateratzen dugun argazki kantitatea.**

Bai, halaxe da. Telefonoarekin ateratako argazkiek funtzio jakin bat bete dezakete, baina kalitateari begiratuz, oso gutxi dira onak; batik bat, pentsatu gabe ateratzen ditugulako.

**Zein ezaugarri izan behar ditu argazki on batek?**

Bada falta ezin den zerbait, funtsezkoena dena: argia. Argazki ilun bat oso ona izan daiteke, baina iluntasun horrek ondo argizatuta egon behar du. Argazkia egin aurretik argiari erreparatu behar zaio lehenik, nondik datorren ikusi, ze intentsitate duen kalkulatu. Bestalde, argazkiko subjektua pertsona bada, keinua ere garrantzitsua da niretzat. Irudiak zerbait komunikatu behar du.

**Benetako argazkilaria, inoiz erretiratzen al da?**

Ez dut uste. Nire kasuan behintzat, argazkiak egiten jarraituko dut. Nire izaeraren zati garrantzitsua da argazkilaritza, utzi ezin den droga baten antzeko zerbait.

**Orion beste bi negozio itxiko dituzte laster jubilazioagatik. Zergatik ez dute jarraipenik?**

Komertzio txikientzat gauzak asko zaildu dira. Jendea gehiago joaten da zentro komertzial eta halako lekuetara. Hala ere, dudarik gabe, internet da jendearen kontsumo al-daketetan gehien eragin duen faktorea. Zaila da konpetentzia horiei aurre egitea.

# Zertan da Aritzaga-Herrko Plaza gunea berritzeko proiektua?



Herriko Plaza eta Aritzaga kalea oinezkoentzat izatea proposatzen du proiektuak. ORIOKO UDALA

2016ko uztailean Aritzaga kalea eta Herriko Plaza berrurbanizatzeko lanak esleitzeko lehiaketa publikoa ireki zuen Orioko Udalak. Lehiaketan parte hartu zutenei beren proposamena lantzea eskatu zion udalak, hau da, oinarritzko lan batzukeginda nola berrurbanizatuko luketen herriko sarrera.

Bost proiektu aurkeztu ziren lehiaketara eta, guztiek, bakarrak izan ezik, trafikoa mantentzen zuten plaza barruan. Beste proposamenak gunea hori guztia oinezkoentzat jartzea proposatzen zuten. Azken proiektu hori, Jon Begiristain arkitektoak zuzentzen duen taldearena, izan zen lehiaketa irabazi zuena.

## Saneamendu eta trafiko arazoak

Aritzaga-plaza gunean saneamendu arazo handia dago. Ur zikinak eta euri urak ez dira bereizten, eta horrek arazoa sortzen du ura araztegi bidaltzean. Horrek, saneamendua konpontzeko lanak eskatzen ditu.

Bestalde, trafiko arazoa dago plazan. Gaur egun, herriko plazak biribilgune modura funtzionatzen du eta, trafikoa-ren herriko sarrera hortik izanik, arrisku puntuak sortzen dira. Plazatik Eusko Gudari Kalera doan bidea, esaterako, oso estua da eta puntu beltz arriskutsua da oinezkoentzako.

1954ko plan orokorretik aurrerako guztietan herri trafiko arazoak konpontzeko zubi bat planteatzen zen Arrantzale kaletik ibaiaren beste aldeara. 2007ko arauetan ere zubiaren proiektua zegoen, baina Portu Zuzendaritzak atzera botatu zuen babes-portua mantentzeko.

Begiristainen proposamenak Aritzaga plazaren peatonalizazioa proposatzen du. Goiko planoan ikusten den bezala, Txistulari kaletik sartuko da trafikoa eta Ibai Ondotik irten. Moilako aldean bi norantzetako errepidea egongo da. Ibai Ondo kaletik irteteko 2,40 metroko galiboa egongo da, orain dagoen bezala. Altuera hori gaintzen duten ibilgailuek Txanka bidea hartu beharko dute herritik irteteko.

## Portu zuzendaritzarekin harremana

Begiristainen proiektuak ekartzen zuten zailtasun nagusia honakoa da: plaza oinezkoentzat izanik, trafiko guztia moilatik bideratuko dute, bi norantzetan. Moilazabalagoa izatea eskatzen du horrek.

Orioko moila 1920. urtean eginikoa da. 80ko hamarkadan moilako kota -4ra jeisteko lanak egin ziren eta moila zahara eraldatu eta indartu zen. Lan horiek arazoak sortu zituzten hainbat tokitan eta beste batzuetan ez zuten

erabat ondo funtzionatu – itsas etxe eta kofradia gunean –. Moila zaharra egotera txarrean dago eta oro har, esku hartze bat behar du.

Hori kontuan izanik, moilako lanak martxan jarri eta moila bera bi metro zabaltzeko eskatu zion Orioko Udalak Portu Zuzendaritzari.

Haien lehen erantzuna ezezkoa izan zen; Portu Zuzendaritzak ez zuen aurreikusitako epe laburrean Orioko moila konpontzea. Orain asteburuetan egiten den bezala, herriko sarrera moilatik eta irteera Txanka bidetik izatea proposatu zuten, baina hori ez da bideragarria Udalaren ustez: moilatik Aita Lertxundi kalera joateko –100 metro inguru daude– 4,3 kilometroko ibilbidea egin behar dute ibilgailuek.

Urtebete inguruko negoziazioen ondoren, moila berritzeko etabi metro zabaltzeko konpromisoa hartu du azkenean, idatziz jakinarazi zion udalari abenduaren 7an.

Urtebete Portu zuzendaritzarekin negoziatzen pasa ostean –tartean Erki degokio hauteskundeak eta bi zuzendari izan dira–, lortu dute moila zabaltzeko lanak onartzea eta haiek egiteko konpromisoa hartzea. Lanak egin ahal izateko egitasmo teknikoa lantzen ari dira eta egun hauetan Bordatxo eta Xixario inguruan zundaketa lanak egiten ari dira egitasmoko azterketa geoteknikoa osatzeko.

Aritzaga-plazako lanak egitean kalte gutxien sortzeko, lehendabizi moilako lanak egin eta trafikoa bi norabideetan jartzea litzake egokiena, herriko sarrera irteerak ahalik eta gutxien oztogatzeke. Bestetik eta Plaza aldean dauden komertzio eta ostalaritza establezimenduak kontutan hartu behar dira obra hasteko datak eta faseak zehazterakoan beraiei sortuko zaien eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

Portuko lanak 6 hilabeteko iraupena izango dute eta Aritzaga-herriko plazako lanek aldiz 10 hilabete inguru.



### EAJ Etengabeko aurrerapausoak ematen

EAJren zeregina gure herritarren bizi kalitatea hobetzea da. Aritzaga-plaza inguruko interbentzioa horren eredu da. Eremu honetako saneamendu obrak egiterakoan herri gunearen egitura hobetzeko aukera ikusita, horretara jarri ginen. Moilan ibilgailuentzat bi noranzko ibilbidea emanez, plaza ingurua guztiz oinezkoentzako bideratuko da. Moila Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko gunea izanik, proiektuari bere onarpena emateaz gain, errepidea errioruntz zabaltzearen koste haundiena eta kudeaketa osoa haren gain jartzea ere lortu du EAJren udal taldeak. Momentu honetan, moilaren zabaltzeko obra egiteko, Portuetako administrazioak lizitaziorako behar dituen txosten eta tramiteak amaitzear dago. Aritzaga kalea eraberritzeko proiektua ia amaitua dago eta gero lizitaziorako prozedura hasiko da. Herriaren bihotza eta bertarako sarrera-irteerak eremu honetan daudela jakinda, obra guztiek sortzen dituzten eragozpenak, ahal den neurrian, eraginik txikiena izateko lanean dihardugu.



### Orain Iritzirik ez

Gaizkiulertu bat dela eta, hilabete honetan ezin izan dute iritzia idatzi.



### EH Bildu Deskoordinazioaren ondorioak

Administrazioaren lan-prozedurak berezkoa du, neurri batean, moteltasuna; baina, honetan ere, badaude neurriak eta neurriak. 2016an hasi ginen plaza ingurua berritzeko egitasmoarekin. Orduan obrak 2017an hasi eta 2018an bukatzea aurreikusten zen. 2017. urtea bukatzear dago eta oraindik oso urruti ikusten da lanen hasiera. Zergatik? Plaza inguruko berritze-lanak moila aldea zabaltzea dakarrenez, derrigorrezkoa da Udalaren eta Portuetako Zuzendaritzaren arteko elkarlana, plana aurrera ateratzeko. Bi administrazioak EAJren esku daudenez, konponbide azkarra espero izatekoa zen, baina ez da horrelakorik gertatu. Moilako lanak, azkar jota, 2018ko udazkenean hasiko dira eta, ondorioz, moila aldea itxita egongo da hiru bat hilabetez. Kontuak horrela, obrak herritarrei eragingo dizkien arazoak ahalik eta txikiak izateko, gure aukera hau da: moilako lanak bukatu eta bertatik ibilgailuentzako bi norabideak bermatu ondoren hastea Plaza berritzeko lanak.



### PSE-EE Aritzaga

Azken urteetako lanik garrantzitsu eta beharrezkoena da hau. Beharrezkoa da Aritzaga kaleak saneamendu eta zoru arazo larriak dituelako. Eta garrantzitsua da lana kostu handikoa eta oso konplexua delako. Saneamendu arazoak konpontzeaz gain, Bordatxoko eraikinaren parean moila zabalduz, bi norabideko sarrera-irteera errepidea sortuko da. Horrela, Aritzaga eta Plaza oinezkoentzako izango dira behin betiko. Portu Zuzendaritzak konpromisoa hartzea lortu dugu eta idatziz adierazi du portua zabalduko duela. Orain azterketak egingo dituzte obra egiteko beharrezkoa den denbora zehazteko. Udalak saneamendu lanak moila zabaldu aurretik edo ondoren egingo dituen erabai behar du. PSEk uste du moilako lanak egin eta bi erreiak ziurtatu behar direla Aritzaga kalea altxatzen hasi aurretik. Izan ere, bi lanak garai berean egiten badira zirkulazio arazo handiak sortuko dira herrian denbora luzez. Obra honek mereziko du, onura handiak izango baititu herriarentzat.



## Zorionak bikote!

Azaroaren 24an ezkondu ziren Ibon Arrizabalaga de Mingo eta Eneritz Ibarra Azpeitia. Familia giroan festa ederra izan genuen eta eskerrak ematearekin batera zorionsu izatea opa nahi dizuegu!

## Zorionak Joxe eta Jexuxi!

Azaroaren 18an urrezko ezteiak ospatu zituzten familian. Egun ahaztezina, nahiko algara eta negar egindako eguna izan zen. Unai Manterola apaizak esan moduan ez dugu beste 25 urte itxaron behar berriz ospatzeko, urtero ospatu behar degu, ogitarteko bat jan behar badugu ere. Famili guztiaren partez asko maite zaituztegu. Segi horrela bikote!



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

**OREKA FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgia  
Artrrosia  
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,  
bentosa, akupuntura,  
eskuzko terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**

Aritzaga kalea, 11 behea

**ORIA hertz klinika**

Orio Hertz Klinikak **ORFODONTZIA** zerbitzu berria jartzen du martxoan. Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizuneari sar daitezkeen arazoak.

Aranzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

ile apaindegia

**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Fusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**URAITZ**

salberrindotzia  
jantzi-eragarririk

Enkandiz Txarri 943 83 18 97

**ELEKTRIZITATEA**

Ander Exposito

943 831 774  
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com



## Gizartea

### Zaharren Babeslekuaren batzarra egingo dute urtarrilaren 10ean

Urtarrilaren 10ean, asteazkenean, urteko batzarra egingo du Zaharren Babeslekuak. Kultur Etxeko arteto nagusian izango da batzarra, 16:15etik aurrera. Bigarren deialdia 17:00etan egin dute.

Hau da landuko duten gai zerrenda:

- Presidentearen agurra
- 2017ko urtarrilaren 11n egindako azken Batzar Nagusiaren akta irakurri eta, egoki bada, onartzea
- Alkatearen hitzak
- Ekitaldi ekonomikoaren itxiera eta 2017. urteko balantzea
- 2017ko jardueren memoria
- Zuzendaritza batzordeko kideak berritzea
- Eskariak eta galderak

#### 2018ko kuotaren ordainketa

Babeslekuak bazkideei gogorarazi nahi die urtarrilaren 22tik 26ra birtartean kobratuko dutela 2018ko kuota. Arratsaldean ordaindu beharko da kuota, 16:00etatik 18:00etara, Babeslekuan bertan.

## Gizartea

### Gabonetako kanpaina jarri du martxan Arkupe elkarteak

Abenduaren 18tik 31ra Gabonetako kanpaina jarri du martxan Arkupe merkatari elkarteak. Kanpainak irauten duen egunetan deskontuak egingo dituzte herriko merkatari eta ostalariek beren lokaletan. Horrez gain, hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte. Abenduaren 23an, larunbatean, papiroflexia tailerra egingo dute Herriko Plazan, goizean zehar. Abenduaren 24 goizean, berriz, txokolatada egingo dute plazan.

## Ingurumena

### Kaleko iturrietako ura moztu egingo da, tarteka, izotz-abisua dagoenean

Urtero egiten den bezala, neguko hilabeteetan, iturri publikoetako ura moztuko du Udalak izotz-abisua dagoen guztietan. Ura ez da beti moztuko, baidak eta, bakar-bakarrik, hotz handia eta izotza iragarrita dagoenean, ura eramaten duten hodiak ez lehetzeko. Izozteetan arazo handiak sortzen dira ur-hodiekin, barruko ura izoztu egiten delako eta, ondorioz, hodiak lehertu egiten direlako. Hori gertatzen denean, ur-galera handia izaten da eta, hori saihestu nahi du Udalak neurri hori hartuta.

## Gizartea

### Txurrumuskik eski irteera antolatu du

Txurrumuski Aisialdi Elkarteak eski asteburu pasa antolatu du Luz Ardidenera, urtarrilaren 20 eta 21eko astebururako. DBH 1etik DBH 4ra bitarteko gaztetxoak gonbidatu dituzte Ametsa gaztelekuan izena ematera, eta azken eguna urtarrilaren 11 izango dela ohartarazi dute. 95 euroko kostua izango du irteerak.

## Gizartea

### Orioko elizan grabatuko dituzte ETB1eko Meza Santuak



Meza Santua programaren hiru grabazio egingo dituzte Gabonetan Orioko elizan. Euskal Herri osotik grabatu ohi dute, txandatu. Horietakoz batzuk Gipuzkoan grabatzen dituzte, eta hiru Orioko elizan grabatuko dituzte; Gabonetan. Normalean, bezperan grabatzen dute; baina bi jaietun elkarrekin gertatzen direnean, bigarrena zuzenean emititzen da. Abenduaren 24an goizeko 10etan emitituko da lehenengoa, bezpera arratsaldean (23an) 18:00etan grabatuta. Abenduaren 25ean goizeko 11:00etan emitituko da bigarrena, zuzenean. Abenduaren 31n goizeko 10:00etan emitituko da hirugarrena, bezpera arratsaldean (30ean) 18etan grabatuta.

Meza hasi aurretik, herriaren inguruko bideo labur bat botatzen dute. Lehenengo mezaren aurretik herriaren historia izango du ardatz bideoak, bigarrenengoaren aurrekoak herriko kaleak eta etxe bereziak, eta azkenak, eraikin erlijiosoak eta Orioko ondarea.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

- Gela bat edo biko pisu bat alokatu nahi dut. Aian eta inguruan. Tf: 665076624 -Aziza-
- Bi lagun ostatu bila. Pisu bat alokatu nahi dugu. Tf: 632420818
- Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia-25metro-, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Komun propioa. Etxeak 50metroko terraza du. Tf: 652551550

**Lan eskaintza**

- Urdaira sagardotegian txotx denboraldirako lan-gile bila gabiltza, asteburuetan lan egiteko. Tf: 943372691 eta 619403691.
- Emakume baten bila gabiltza, etxeko lanak egin, eta haurrak zaintzeko. Goiz eta arratsaldeko haurrak eskolara eraman, eta eskolatik jaso ahal izateko. Disponibilitatea esker-

tuko da. Harremanetarako zenbakia: 606675048

- Neska euskalduna behar dugu otsailetik aurrera ume bat zaintzeko eta etxeko garbiketa egiteko. Interesatuak deitu 690152796 telefonora.

**Lan eskaera**

- Lan bila nabil: garbiketant eta helduen zaintzan. Esperientzia eta kualifikazioa daukat eta Orion bizi naiz. Tf: 671908242 -Felicit-
- Neska euskalduna lan bila, otsailetik aurrera. Tf: 690152796
- Lan bila dabilen neska bat naiz. Helduen zaintzan eta garbiketant esperientzia daukat eta pape-lak ditut. Tf: 663117579
- Emakumea lan bila. Esperientzia du pertsona helduak zaintzen, garbiketant eta besta hainbat lanetan. Paperak eguneratuta eta gomendioak ditut. Tf: 674123293

**Salgai**

- Lokala salgai edo alokagai Pelotari kalean. Tf: 678547840
- Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo 22€, taina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943 132131 edota 634 424 887

**Besteak**

- Lehengo astean monopatint berdea galdu zen elizako igogailuaren ondoan. Norbaitek aurkitu badu utz dezala, mersedez, Gozategi frutadendan.
- Nextor 2 urteko ar ziki-ratua eta Kleo urtebeteko emea. Biak adopzioan daude. Banatuta adoptatu daitezke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943.83.54.51



**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	3:22 eta 15:48	9:29 eta 21:51	○
02	4:11 eta 16:37	10:19 eta 22:38	○
03	4:58 eta 17:26	11:08 eta 23:26	○
04	5:46 eta 18:14	11:57 eta ____	○
05	6:34 eta 19:03	0:14 eta 12:46	○
06	7:24 eta 19:54	1:02 eta 13:37	○
07	8:16 eta 20:49	1:53 eta 14:30	○
08	9:12 eta 21:50	2:47 eta 15:27	○
09	10:16 eta 22:58	3:48 eta 16:30	○
10	11:26 eta ____	4:55 eta 17:36	○
11	0:09 eta 12:37	6:06 eta 18:41	○
12	1:13 eta 13:38	7:11 eta 19:37	○
13	2:06 eta 14:29	8:06 eta 20:25	○
14	2:50 eta 15:11	8:52 eta 21:06	○
15	3:29 eta 15:49	9:32 eta 21:43	○
16	4:04 eta 16:24	10:08 eta 22:19	○
17	4:38 eta 16:57	10:44 eta 22:53	○
18	5:11 eta 17:30	11:18 eta 23:28	○
19	5:43 eta 18:03	11:52 eta ____	○
20	6:16 eta 18:36	0:02 eta 12:27	○
21	6:50 eta 19:11	0:37 eta 13:03	○
22	7:26 eta 19:50	1:14 eta 13:42	○
23	8:08 eta 20:35	1:55 eta 14:27	○
24	8:57 eta 21:31	2:43 eta 15:20	○
25	10:00 eta 22:40	3:42 eta 16:23	○
26	11:15 eta 23:58	4:53 eta 17:34	○
27	12:34 eta ____	6:09 eta 18:45	○
28	1:11 eta 13:45	7:21 eta 19:50	○
29	2:15 eta 14:45	8:23 eta 20:47	○
30	3:10 eta 15:39	9:19 eta 21:39	○
31	4:01 eta 16:28	10:10 eta 22:27	○

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

URTARRILA:

- 1ean, Zulaika
- 2an, Gaminde
- 3an, Lasa
- 4an, Gallo
- 5ean, Lasa
- 6an eta 7an, Iturria
- 8an, Zulaika
- 9an, Etxeberria
- 10ean, Izpizua
- 11n, Gallo
- 12an, Larrañaga
- 13an eta 14an, Iriarte
- 15ean, Etxeberria
- 16an, Izpizua
- 17an, Gallo
- 18an, Larrañaga
- 19an, Lasa
- 20an eta 21ean, Esparza
- 22tik 26ra, Lasa
- 27an eta 28an, Gaminde
- 29an, Gallo
- 30ean, Zulaika
- 31n, Iriarte

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa kalea, 68. 943 47 75 84 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**

GARBINE ARRILLAGA  
ARRITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 41

100% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAI

Garbine Arrigi

Moda de osagarriak

Herriko plaza, 5  
635 716 265

¡prezgarritasun goizuz zabaltze!

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa

**argine**

55eko deakentza familia ugariet txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889 [argine/jantziak](https://www.facebook.com/argine/jantziak)

**Zaragueta**  
Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

# Orio

## Gabonak

- Abenduaren 23an, Herribil dantza emanaldia, Harribil dantza taldeak antolatuta. 22:00etan, Karela kiroldegian.
- Abenduaren 24an, 10:45ean, haurren kalez kaleko kantu saioa. 11:00etan, tonbola plazan, Ikastolako DBHko ikasleek antolatuta.
- Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Herriko Plazara, 17:30ean.
- Abenduaren 27an, asteazkenean, Gabonetako Haur Parkea Karelana, 11:00-13:30 eta 16:30-19:30.
- Abenduaren 30ean, pedalkadak joz argia egiten duten bizikletak, 17:00etatik 20:00etara, plazan.
- Abenduaren 31n, San Silvestre lasterketa, Ikastola aurretik abiatuta. 11:30ean haurrak eta 12:00etan helduak.
- Urtarrilaren 5ean, 11:00etan Erregeen karterua kalez kale. 18:00etan Erregeen kabalgata.

## Musika

- Abenduaren 28an, bertsio gaua Etxeluzen.
- Abenduaren 25ean, Ikatza fest: Uther, Total Arse eta Shinigami taldeak, 20:30ean, Etxeluzen.
- Urtarrilaren 2an, Gospel kontzertua: Evening Prayer. 19:30ean, elizan.

# Aia

## Gabonak

- Oraindik ez dute egitaraua argitaratu, aurki izango da ikusgai [www.aia.eus](http://www.aia.eus) webgunean.



## AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasangarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

[bidegi.eus](http://bidegi.eus)



# Hondakinak gaika sailkatzeko sistema berria

## 2018 Otsailaren 1etik aurrera

Txartel bidez materia organikoaren eta errefusaren edukiontzia irekiko dira.



### ZALANTZAK ARGITZEKO ETA INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

Udaletxeetako arreta zerbitzuak

943 89 08 08

[hondakinak@urolakosta.eus](mailto:hondakinak@urolakosta.eus)

[www.urolakosta.eus](http://www.urolakosta.eus)



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA



BAGOAZZ